

BESTELAKO XEDAPENAK

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

238

EBAZPENA, 2024ko abenduaren 19koa, Industria Administrazioari Arabako lurralde-ordezkaritza. Honen bidez, Arabako Gaubea udal-mugaratean dagoen «Mendia 4» izeneko parke eolikorako administrazio-baimenaren eskaeratarako lehia-prozedura ebatzen da.

Espediente-zk.: 01-GEY-2024-00048

AURREKARIAK

1.– 2024ko ekainaren 10ean, Mendia Wind, SL enpresak, «Mendia 4» aurreproiekturako aurretiko administrazio-baimena eskatu zuen, Arabako Gaubea udal-mugaratean.

2.– Maiatzaren 28ko 115/2002 Dekretuaren 4. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, eskaera jendaurrean jarri zen, lehian eskaera egin ahal izateko, eta horretarako, iragarkia argitaratu zen 2024ko urriaren 21eko Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean eta 2024ko azaroaren 12ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

3.– Arauz ezarritako epean ez da aurkeztu lehiarako baimen-eskaera gehiagorik.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.– Elektrizitatearen Sektoreari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 21. artikulua, Energia elektrikoaren instalazioak garraiatu, banatu, merkaturatu, hornitu eta baimentzeko prozedurak arautzen dituen abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretuaren 115. artikulua eta Euskal Autonomia Erkidegoan parke eolikoetako energia eolikotik energia elektrikoa ekoizten duten instalazioei baimena emateko prozedura arautzen duen maiatzaren 28ko 115/2002 Dekretuak ezartzen dute energia elektrikoa ekoizteko Parke Eolikoak eraikitzeke alde aurretiko administrazio-baimena behar dela.

2.– Arabako Lurralde Ordezkaritza da espediente hau izapidetzeko eta ebatzeko organo eskuduna, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 3ko 410/2024 Dekretuaren 20. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Aipatutako lege-xedapenak ikusita, eta oro har zein zehazki aplikagarri diren gainerakoak oinarri hartuta, Arabako lurralde-ordezkaritza hau

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Mendia Wind, SL enpresak Arabako Gaubea udal-mugaratean dagoen «Mendia 4» izeneko parke eolikorako aurkeztutako aurreproiektua hautatzea.

Bigarrena.– Mendia Wind, SL enpresak 115/2002 Dekretuak 7. artikuluan ezartzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko du sei hileko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, aurretiko administrazio-baimena izapidetzeko.

2025eko urtarrilaren 16a, osteguna

Ebazpen honek ez du administrazio-bidea amaitzen, eta bere aurka gora jotzeko errekurtsioa jar daiteke Deskarbonizazioaren zuzendariaren aurrean, hilabeteko epearen barruan, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, eta hori guztia Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta hurrengo artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko abenduaren 19a.

Industria Administrazioko Arabako lurralde-ordezkaria,
JOSÉ MIGUEL MUÑOZ SAN MARTÍN.